

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5160

AGINDUA, 2023ko azaroaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzetarako deia egiten duena 2023ko ekitaldirako.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren lehenetsuneko jardun-arloetako bat da nekazaritzako eta elikagaigintzako ekoizpen-eremuetan sektorea egituratzeko bultzada ematea, azpisektore bakoitzaren aholkularitza eta interesak indartzeko artikulazio-elementu gisa, nekazaritzako elikagaien balio-katearen barruan negoziatzeko duten gaitasunean.

Hortik dator «Elkarteak» programa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialeiei laguntzeko programa, eta helburutzat ditu azoken funtzionamendu-, ordezkaritza-, laguntza- eta antolaketa-gastuak finantzatzea, bai eta azpisektore-eremu bakoitzean ekoizpena hobetzeko proiektu esperimentalak egitea ere.

Laguntza-programa hau sartuta dago Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren bitartez onartu zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021, 2022 eta 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, eta egoitza elektronikoa honetan kontsulta daiteke: <https://www.euskadi.eus>

Indargabetu egin zen 233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialeiei zuzendutako laguntzei buruzkoa («Elkarteak» programa) (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 233. zk., 2011ko abenduaren 12koa), irailaren 19ko 134/2023 Dekretuaren bidez –134/2023 Dekretua, irailaren 19koa, Nekazaritzako Europako Berme Funtzak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak (LGENF) finantzatutako gastuen Erakunde Ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen Dekretua aldatzekoa eta 233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzei buruzkoa («Elkarteak» programa), indargabetzekoa—. Hala, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren asmoa da euskal nekazaritzaren sektorean asoziazionismoa sustatzen jarraitzea; horregatik, sailburuordetzaren helburuekin bat datozen laguntzak emateko sistema bat arautzea proposatzen du.

Agindu honen xedea da euskal nekazaritza-sektoreko elkarte profesional eta enpresarialeiei dirulaguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, erakunde horiek funtsezkotzat jotzen baitira azpisektore jakin batzuk beren jarduerak sustatuz egituratzeko.

Aginduak genero-ikuspegia txertatzen du, bai lantzean, bai aplikatzean, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen arabera, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera ere.

Laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduren 23ko 15/2022 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Horren arabera, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzak proposatuta eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onestea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzen 2023rako deialdiaren oinarriak (agindu honen I. eranskinean jasota daude).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, erakunde interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren menpe egongo dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Dekretuan jasotako oinarrizko araudia, zeinaren bidez azken horren Erregelamendua onartzen den, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinaren bidez arautzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 7a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialei zuzendutako 2023ko ekitaldirako laguntza ekonomikoen deialdia egitea, helburu hauekin: 2023. urtean prestakuntza-jarduerak eta -azterlanak egitea, jarduerak sustatzea eta zabaltzea, haien helburu sozialak betetzeko funtzionamendu-gastuak ordaintzea, eta elkartekideak sustatzeko azokak eta lehiaketak antolatzea.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Helburu hori betetzeko, 350.000,00 (Hirurehun eta berrogeita hamar mila) euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023ko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako partidetatik: 250.000,00 (Berrehun eta berroigeta hamar mila) euro nekazaritza-sektorerako eta 100.000,00 (Ehun mila) euro elikagaigintza-sektorerako.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Laguntza hauen onuradun izan daitezke EAEko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte profesionalak eta haien federazio eta konfederazioak.

2.– Kanpoan geratzen dira izaera sindikaleko nekazaritza-erakunde profesionalak, hau da, EAEko nekazaritza-sektorearen interes orokorrak ordezkatzeko eta defendatzeko helburu dutenak, bai eta EAEko arraza garbien abeltzain-elkarteei dirulaguntzak emateko modua arautzen duen urriaren 24ko 240/2017 Dekretuan sartzeko diren elkarteak ere.

4. artikulua.– Onuradunen betekizunak.

1.– Eskabideak aurkezteko epean betekizun espezifiko hauek betetzen dituztenak izan daitezke onuradun:

a) Legez eratuta eta inskribatuta egotea dagokion erregistroan edota Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 86. artikulua bidez sortutako Nekazaritzako eta Elikagaigintzako elkarte adierazgarrien erroldan, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen.

b) Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

c) Bere helburu soziala soilik nekazaritza- edo elikagaigintza-sektorearen interesak defendatzeari eta ordezkatzeari lotuta egotea.

d) Irabazi-asmorik ez izatea.

e) Jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izatea.

2.– Ezin izango dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) 50.5 artikuluan aurreikusitako egoeretako batean daudenek; besteak beste, egoera hauetan daudenek:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak ordaindu gabe izatea.

b) EAEko Administrazioak edo haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, itzultze- edo zehapen-prozeduretako kantidadek zehatzen ordainketari

dagokionez egunean ez egotea. Betebehar horien ordainketa egunean dutela ulertuko da, baldin eta zorrik ez badute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako edozein erakunde-ekin edo haren sektore publikoarekin, betearazpen-aldiko dirulaguntzak itzultzeagatik, edo, onuradunen edo premiamendu-bidea erabili behar ez duten erakunde laguntzaileen kasuan, borondatezko aldiak ordaindu ez diren zorrak ez badituzte. Dirulaguntzak itzultzeko betebeharraren ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak geroratuta edo bermatuta daudenean, edo dagokion ebazpenaren inpugnazioa dela-eta horiek bertan behera uztea erabaki denean.

c) Dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat izatea, edo horretarako legezko debekuren bat izatea, sexu-diskriminazioak eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeak eragindakoak barne, dagokion zehapenean ezarritako aldiak.

3.– Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 6/2015 Legearen 19.3 artikuluan ezartzen denez, nekazaritzaren arloan eskumena duten EAEko administrazioek ez diete ez laguntzarik ez dirulaguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, baldin eta zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute.

4.– Betebehar horiek laguntza-eskabidea aurkezten den unetik emandako dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta gehieneko zenbatekoak.

1.– Gastu hauek lagundu daitezke diruz 2023. urtean, gehienez % 70era arte:

a) Nekazaritza- edo elikagaigintza-sektorean jarduteko baldintzak sustatzeko eta hobetzeko ikerketak eta prestakuntza-ekintzak (aurrez aurrekoak zein telematikoak) egiteko gastuak, bai eta elkartearen jarduerak sustatzeko eta hedatzeko ekintzen gastuak ere.

b) Nekazaritza eta abeltzaintzako edo elikadurako azokak eta lehiaketak (aurrez aurrekoak zein telematikoak, autonomia zein estatu mailakoak) antolatzeko edo horietan parte hartzekeko gastuak, gehienez ere ekitaldi bakoitzeko bi ordezkariarentzat. Kanpoan geratzen dira bidaia-gastuak (garraioa, ostatua, dietak...).

2.– Gastu hauek lagundu daitezke diruz 2023. urtean, gehienez % 50era arte:

a) Pertsonal-gastuak, kaleratzeagatik eta erretiro aurreratuagatik ematen diren kalte-ordainak izan ezik.

b) Helburuak lortzearekin lotutako funtzionamendu-gastu hauek:

– Alokairuak, erakunde eskatzailearen ohiko jarduera gauzatzen den egoitzena bakarrik.

– Erakunde eskatzailearen organoetako kide ez diren profesional independenteen zerbitzuak.

– Aseguru-primak.

– Hornidurak, erakunde eskatzailearen ohiko jarduera gauzatzen den egoitzetako txorrotako uraren, argiaren eta gasaren gastuei dagozkienak soilik.

– Beste erakunde batzuetako kide izateagatik ordaindu beharreko kuotak.

3.– Hauek dira gastu-kontzeptu bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoak:

- a) 30.000 euro, 5. artikuluko 1. apartatuko a) kontzeptuan adierazitako guztizko gastuan.
- b) 10.000 euro, 5. artikuluko 1. apartatuko b) kontzeptuan adierazitako guztizko gastuan.
- c) 30.000 euro, 5. artikuluko 2. apartatuko a) kontzeptuan adierazitako guztizko gastuan.
- d) 20.000 euro, 5. artikuluko 2. apartatuko b) kontzeptuan adierazitako guztizko gastuan.

4.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute. Onuradunak dirulaguntzaren xede diren ekintza guztiak azpikontratatu ahal izango ditu, 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan adierazitako mugen barruan.

5.– Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko aurkeztutako gastuengatik ordaindutako BEZari dagokion zatia, ez eta, oro har, beste edozein zergari dagokiona ere, eta, oro har, argi eta garbi definituta ez dauden eta agindu honen 5. artikuluan 1. eta 2. apartatuetan jasotakoekin zuzenean identifikatu ezin diren gastu guztiak.

6. artikulua.– Kuantifikazio-irizpideak.

1.– Onuradun bakoitzari dagokion laguntzaren zenbateko zehatza ezartzeko, balorazio-ehuneko metagarriak aplikatuko zaizkio onartutako gastuaren zenbatekoari, betiere artikulua honetan ezarritako mugen barruan. Hauek dira balorazio-ehuneko metagarriak, sektoreka:

Elikagaigintza-sektorea:

- a) Elkarte edo federazio sortu berriak, lurralde historikoetako elkarrekin batzearen ondorioz eratutakoak (% 10 gehienez).
- b) Erakunde eskatzaileak aldeztu dituen interes ekonomiko eta sozialen garrantzia (% 20 gehienez).
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore zehatz bakoitzaren barruan egiaztatzen duen ezarpen-maila (% 15 gehienez).
- d) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen, Sailak sustaturiko jarduera eta ekimenetan erakundeak azaltzen duen lankidetzeta-maila, betiere haren arloa modernizatu eta hobetzeari dagokionez (% 15 gehienez).
- e) Azoka profesionaletan parte hartzea (% 10 gehienez).
- f) Aurkeztutako proiektuen interes teknikoa eta zientifikoa, bai eta emaitzek sektorea hobetu, garatu eta modernizatzeari begira ekar ditzaketan abantailak ere (% 5 gehienez).
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, elkarrekin edo federazioaren barne-komunikazioetan zein kanpokoetan (% 5 gehienez).

Nekazaritza-sektorea:

- a) Erakunde eskatzaileak aldeztu dituen interes ekonomiko eta sozialen garrantzia (% 30 gehienez).

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore zehatz bakoitzaren barruan egiaztatzen duen ezarpen-maila (% 25 gehienez).

c) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen, Sailak sustaturiko jarduera eta ekimenetan erakundeak azaltzen duen lankidetzeta-maila, betiere haren arloa modernizatu eta hobetzeari dagokionez (% 15 gehienez).

d) Aurkeztutako proiektuen interes teknikoa eta zientifikoa, bai eta emaitzek sektorea hobetu, garatu eta modernizatzeari begira ekar ditzaketan abantailak ere (% 15 gehienez).

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, elkarte edo federazioaren barne-komunikazioetan zein kanpokoetan (% 15 gehienez).

7. artikulua.– Laguntzak izapidetzea.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak elektronikoki izapidetuko dira.

2.– Interesdunek baliabide elektronikoaren bidez egin behar izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak.

Laguntza hauek izapidetzeko baliabide elektronikoak erabiltzeko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa jarriko dira: <http://www.euskadi.eus/egoitza>

8. artikulua.– Eskabideen aurkezpena eta epeak.

1.– Dagokion zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio laguntza-eskabideak:

a) Elikagaien Kalitate eta Industria Zuzendaritzari, elikagaien sektorearen kasuan.

b) Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, nekazaritzaren kasuan.

2.– Eskabideak kanal elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta, eta web-helbide honetan eskuragarri dagoen eskabide-eredu normalizatuaren bidez:

Elikagaigintza-sektorea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1083405>

Nekazaritza-sektorea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0113510>

3.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa –hor eskuratu daitezke tramitaziorako jarraibideak eta ereduak, eta horren bidez sar daiteke eskabide-formulariora– helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/>

Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»-ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarrien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Dokumentuak aurkeztea.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak jasotzeko, eskabide-inprimakia behar bezala beteta aurkeztu beharko da, II. eranskinean dagoen ereduaren arabera eta erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatuta, eta, horrez gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Erakundeak ekitaldi ekonomikoan garatu dituen edo garatzea aurreikusten duen jardueren eta ekimenen memoria deskribatzaile xehatua, eskatutako gastu eta jardueren arabera: datak eta lekua, parte-hartzaileen kopurua eta ekintzen xedea, giza baliabideak (langileak) eta baliabide materialak (lokalak, bulegoak, etab.), helburu bererako lortutako laguntzak, eta laguntzaren premia eta zenbatekoa ebaluatzeko baliagarriak izan daitezkeen beste alderdi guztiak, II. eranskineko ereduaren arabera.

b) Eraketa-akta eta estatutuak, dagokion organo administratiboak ikus-onetsita.

c) Hala badagokio, erakundea batasun, federazio edo bestelako erakunde baten barruan dagoela egiaztatzen duen agiria.

d) Identifikazio fiskaleko txartela.

e) Erakundeak edo elkarteak agindu honetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko hartu duen erabakiaren ziurtagiria.

f) Hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ekonomia eta Ogasun sailak ezarritako ereduaren arabera. Helbide honetan eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaur-larritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>. Lehen aldiz aurkezten diren edo banku-datuetan aldaketak dituzten eskatzaileek bakarrik. Fitxa hori laguntza eman ondoren aurkeztu daiteke, baina betiere laguntzak ordaindu baino lehen.

Era berean, gastuen zenbatekoa zehatz justifikatu beharko da, behin betiko faktura edo baliokidea erantsiz: eskabideak aurkezteko datan jada egindako ekintzei dagozkien gastuetarako.

2.– Interesdunak ez daude beharturik jada administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste administrazioren batek eginak direnak aurkeztera. Administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatzeko edo eskuratzeko aukera izango du, interesdunak aurka egin ezean. Ezin izango da aurka egin, dokumentua ekartzea nahitaezkoa denean zehatzeko edo ikuskatzeko ahala egikaritzeko esparruan.

3.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Gainera, laguntza-eskabidetik eratorritako jardunetan eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Kudeaketa-organismoak automatikoki egiaztatuko du laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, horretarako haien baimena behar izan gabe. Hala ere, erakunde eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena eta, orduan, dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Dirulaguntza honi Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua aplikatuko zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta

dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak bai Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa.

5.– Laguntza eskatzen duen erakundeak, eskabidearekin batera, eskabide-orrian agertzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, honako alderdi hauen egiazkotasunari buruzkoa:

a) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri eman duela.

b) Betetzen dituela agindu honen 4. artikuluan jasotzen diren eta agiri bidez egiaztatu ez dituen betekizunak.

6.– Eskatzaileak adierazi behar du eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak egiazkoak direla, eta, orobat, dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela. Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, eta baliteke erantzukizunak izatea ere (penala, zibila edo administratiboa).

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango dute, baldin eta aurkeztu den eskabidea behar bezala balioesteko beharrezkotzat jotzen badute.

10. artikulua.– Agiriak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkezturiko agiriek agindu honetan eskatutako betekizunak ez dituztela betetzen ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea utziko dio, akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, deialdia ebazteko eskumena duen organoak horretarako ebazpena eman ondoren.

11. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren ardura izango da agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

12. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Eskabideak aztertzeke, ebaluatzeke zein hautatzeko eta dirulaguntza kuantifikatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da; batzorde hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko hiru teknikari profesionalek –teknikari bat zuzendaritza bakoitzeko– osatuko dute, bai eta Zerbitzu-zuzendariak izendatutako beste teknikari batek ere, eta horien guztien zereginak hauek izango dira: batetik, aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea, agindu honen 6. artikuluan ezarritako kuantifikazio-irizpideak aintzat hartuta; eta, bestetik, dagokion zuzendariari aurkeztu beharreko ebazpen-proposamen bat egitea.

2.– Balorazio-batzordearen barruan gizonetzkoen eta emakumezkoen presentzia orekatua bermatuko da, eta bete egingo da, beraz, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak arautzen duena, zeinaren bidez onartzen baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.

3.– Balorazio Batzordea izendatzeko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, aurkeztutako eskabideak baloratzen hasi aurretik.

13. artikulua.– Esleitzeko prozedura eta baloratzeko irizpideak.

1.– Dirulaguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, baldintzak betetzen dituzten sektore bereko eskatzaileen artean. Aurkeztutako eskabideak alderatuta egingo da lehiaketa, agindu honetan ezarritako kuantifikazio-irizpideak aplikatuta.

2.– Erakunde eskatzaileen zerrenda ordenatua egingo da horren arabera, sektoreka; puntuazio handiena atera duena lehenik, eta hortik beherakoak ondoren. Puntu gehien lortu dituen eskabideari agindu honetan xedatutako gehieneko ehunekoa aplikatuko zaio, eta gainerako eskaerei, hortaz, lortutako puntuazioaren arabera aplikatuko zaie dagokien ehunekoa, hurrenez hurren.

3.– Sektore bakoitzerako aurreikusitako zenbateko ekonomikoa iristen bada kalkulaturako kopuruak emateko, guztiei emango zaie laguntza, aurrez erabakitako zenbatekoan. Gehieneko zenbateko globala ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiak ordaintzeko, zenbatekoa hainbanatu egingo da sektore bakoitzeko onuradunen artean, dagoen funtsak agortu arte.

4.– Sektore batean soberakinik badago, besteari egotziko zaizkio, erabat agortu arte.

14. artikulua.– Dirulaguntza eman, jakinarazi eta argitaratzea.

1.– Dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren edo Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango dira. Ebazpen horrek ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, berorren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio administrazio bereko Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordeari, hilabeteko epean.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako modua erabiliz eta sei hilabeteko epean, agindu honek ondorioak izaten dituen egunetik hasita. Ebazpen horrek zehaztuko du dirulaguntza ematen den ala ukatu egin den; aldekoa bada, erakunde onuraduna zein den eta zenbat eman zaion azalduko da, eta kontrakoa bada, ukatzeko arrazoiak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako epearen barruan ez bada jakinarazten laguntzak esleitzeko ebazpena, eskabidea ukatu egin zaiela ulertu beharko dute interesdunek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez.

3.– Laguntzak esleitzeko prozedura amaitzeko ebazpena erakunde interesdunei jakinarazteaz gain, onuradunak eta emandako zenbatekoak jasotzen dituen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

15. artikulua.– Ordainketa.

1.– Laguntzaren helburu izan diren gastu guzti-guztiak behar bezala justifikatu eta gero abonatu da laguntza; horretarako, gastuak justifikatzeko agiriez gain, II. eranskina behar bezala beteta aurkeztu beharko da (Gastuak justifikatzeko inprimakia). Eta diruz lagundutako jarduera osorik egin ondoren eta egindako gastu guztiak agiri bidez justifikatu ondoren, justifikazio-kontu bat aurkeztuta. Kontu hori egiteko, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikulua bigarren apartatuan adierazitakoa beteko da. Justifikazio-kontu horretan, alderdi hauek jasoko dira:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduketan justifikazio-memoria; bertan, zer jarduera egin eta zer emaitza eskuratu diren adierazi behar da.

b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, ondokoak zehaztuta: hartzeko-dunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa data. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera eman bada, gertatutako desbideratzeen berri ere eman beharko da.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Horrekin batera, behin betiko fakturak edo diruz lagundu daitekeen gastuaren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

2.– Betiere, dokumentazio hori 2024ko urtarrilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko da. Beraz, onartutako programan aurreikusitako gastuak, 2023ko ekitaldian egin direnak edo egin behar direnak, egun hori baino lehen gauzatu beharko dira.

3.– Ez da inolako ordainketarik egingo erakunde onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo itzulketa-ebazpen batek adierazita zordun bada.

4.– Onuradunak aurretik eskaera arrazoitua eta idatzia egiten badu, laguntzaren zenbatekoaren % 50 aurretik ordaindu ahal izango da, deialdia erabakitzeke ebazpena jakinarazi eta dirulaguntza onartu eta gero. Gainerako % 50 dirulaguntza jaso zuen inbertsioa edo gastua erabat eta ondo erabili dela justifikatu eta gero ordainduko da.

5.– Dirulaguntzak onartzeko eta, hala badagokio, onuradunei ordaintzeko, ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomiadunek emandako antzeko dirulaguntzaren bat dela-eta oraindik itzulketa edo zigor prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura hori amaituta egotea.

16. artikulua.– Erakunde onuradunaren betebeharrak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen elkarte-erakunde onuradunek edozein kasutan ondoko obligazio hauek bete behar dituzte:

a) Dirulaguntza eskuratzeko beharrezko diren betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatuta beharko diote dirulaguntza eman behar duen Administrazioari.

b) Emandako dirulaguntza onartu beharko dute. Dirulaguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso, eta hamabost eguneko epean onuradunek idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko dute.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari edo Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote diruz lagundu daitekeen gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez.

e) Beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa eman beharko diote Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

f) Elkartearen jarduerak eta nekazaritza-sektorearekin lotutako berriak sustatzeko eta zabalteko elementuetan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu behar dute.

g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 18. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, dirulaguntzen onuradunen betebeharren inguruan eta dirulaguntzen publizitatearen inguruan, hurrenez hurren.

h) Osorik edo partzialki dirulaguntza honek finantzatuta egiten diren jardueretan, baldin eta jarduera horiek edozein bitartekoren bidez hedatzen badira, izan material inprimatuaren bidez edo izan Internet bidez, ikusteko moduan jarri beharko da sail honen logo instituzionala, testu hau goiburutzat duela: «...k diruz lagundua».

i) Euskal botere publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen erakunde onuradun gisa, beren jarduna 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera gidatzeko eta bideratzeko betebeharra bete beharko dute, horiek nahitaezkoak diren kasuetan (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

2.– Artikulu honen 1.d) apartatuan adierazitako organoen ahalmena gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako dirulaguntzari buruz bidezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

17. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Agindu honekin bat emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek emandakoekin.

2.– Laguntza bateragarrien zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jarduketan kostua, ez beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza edo laguntzekin batera, ezta helburu bererako beste diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera ere.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolana ere, aldi berean beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortzen badira, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere dirulaguntzen arauan onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen badira.

19. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Onuradunek ez badituzte betetzen agindu honetan edo azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako betekizunak edo betebeharrak, kobratzeko eskubidea galdu dutela eta, hala badagokio, itzuli egin behar dutela adieraziko da, aldez aurretik interesdunari entzunda.

2.– Honako prozedura honi jarraituko zaio:

a) Eskumena duen zuzendaritzako titularrak emango dio hasiera prozedurari, eta, hala bada, badagokio, eten egingo ditu oraindik egiteke dauden ordainketak.

b) Goian aipatutako ebazpenak oinarri dituen arrazoiak azalduko ditu, eta hamabost eguneko epea emango du alegazioak egin daitezen.

c) Alegazioak jaso ondoren, edo epea alegaziorik egin gabe amaitu ondoren, prozedurari amaiera emango zaio, eskumena duen sailburuordearen ebazpen baten bidez.

d) Itzulketa-prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea gehienez hamabi hilabetekoa izango da.

e) Ebazpenean adierazten bada ez-betetzen bat egon dela, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat eman eta, bidezkoa denean, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari egoki den zenbatekoa, osorik edo partzialki, itzultzeko betebeharra ezarriko da, dagozkion zenbatekoak gehi dagozkion legezko interesak, betiere proportzionaltasun-printzipioa betez.

3.– Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako.

4.– Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzea, ezta kalteengatiko ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala eskatzea ere.

20. artikulua.– Datuen babesa.

Agindu hau aplikatuta jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko orduan, berariaz beteko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

II. ERANSKINA

NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZAKO ELKARTE PROFESIONAL ETA
ENPRESARIALENTZAKO LAGUNTZAK ESKATZEKO INPRIMAKIAELKARTEAK 2023. ELKARTE ETA FEDERAZIOENTZAKO LAGUNTZAK
ESKABIDEA

ERREGISTROKO SARRERA-DATA

Izen-abizenak:NAN zk.:

.....

Honen ordezkari:

Elkartea/Federazioa:

IFZ/IFK:

Kalea eta zk.:

.....

Telefonoa:Faxa:Helbide elektronikoa:

.....

Herria: (Lurraldea)PK: :.....

Jarduera-arloa:

Harremanetarako pertsona:..... Tel.:

.....

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren aginduan ezarritako **laguntzak jasotzea eskatzen du**. Agindu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzetarako deia egiten da, 2023ko ekitaldirako.

LEGEZKO ORDEZKARIAREN
SINADURA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


**ELKARTEAK 2023. ELKARTE ETA FEDERAZIOENTZAKO LAGUNTZAK
GASTU MOTA**

..... elkarteak/federazioak gastu hauetarako eskatzen du diru-
laguntza:

GASTU MOTA	SARRERAK, KONTZEPTUKA BANATUTA	GASTUAK, KONTZEPTUKA BANATUTA
Ordezkaritza-zereginak		
Funtzionamendu-gastu arruntak: <ul style="list-style-type: none"> • nominapeko langileen gastuak • bulegoen alokairuak • aseguru-primak • garbitasun- eta komunitate-gastu orokorrak • argi, ur, gas eta telefonoaren hornidura • zainketa- eta konponketa-gastuak, ibilgailuenak izan ezik • posta-zigiluek, mezularitza-zerbitzuek eta komunikazioek eragindako gastuak • bulegoko materiala, kopiak eta inprenta • profesional independenteen zerbitzuak; esaterako, gestoria, aholkularitza, eskatzailearen – kideena ez- jarduerarekin zerikusi zuzena duten kontsultak • publizitatea eta propaganda • argitalpenen harpidetza-kuotak 		
Azterlanei eta izaera esperimentalak duten jarduerari dagozkien gastuak		
Azokak edo lehiaketak antolatzeako gastuak		
GUZTIRA	DIRU-SARRERAK, GUZTIRA: euro	GASTUAK, GUZTIRA: euro

.....(e)n, 2023koren(e)(a)n.

**LEGEZKO ORDEZKARIAREN
SINADURA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ELKARTEAK 2023. ELKARTE ETA FEDERAZIOENTZAKO LAGUNTZAK ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Behean sinatzen duenak, bere izenean edo adierazten den erakundearen ordezkari gisa jardunez:

1. Elkaratearen/federazioaren helburua hau da:

-bazkideen interesak defendatzea

- ez du irabazi-asmorik / irabazi-asmoa du.

2. Laguntza-eskaera honetaz gain eta gaur egunera arte, ondoren zehazten diren erakunde publiko edo pribatuetan proiektu honetarako eskaera aurkeztu du edota laguntza eskuratu du:

Eskaeraren eguna	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

Halaber, ekitaldi honetan erakunde pribatuei zein publikoei proiektu honetarako aurkeztzen dizkien laguntza-eskabide guztien berri emateko konpromisoa hartzen du.

3. Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez izatea, eta laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekurik ez izatea, sexu-diskriminazioagatiko zigorrak barne, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onetsitako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak 50.5. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira.

4. Konkurtso-deklaraziorik eskatu ez izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat deklaraturik ez egotea, konkurtsoan deklaraturik ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

5. Ez du administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dituztelarik.

6. Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude honako lege hauetan jasotako kasuren batean: 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goikargudunen jarduna arautzen duena; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako kargu hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

7. Egunean ditu indarreko xedapenek zergen eta gizarte-segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak.
8. Ez du zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
9. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta haren sektore publikoko beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edo bukatuta dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan sartuta ez egotea.
10. EAEko Administrazioak eta haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, itzulketa- edo zigor-prozeduretako kantitate zehatzak ordaintzeko betebeharrari dagokionez egunean dago. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak atzeratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.
11. Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura eten ez izana, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahalko da, dagokion erregistroan.
12. Zuzendaritza-organoetan emakumeak egotea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legearen 19. artikulua aplikatuz:
- Emakumeak badaude;
 - Zuzendaritza-organoa osatzen duten pertsonen kopurua;
 - Emakume kopurua;
13. Eskabidean eta erantsitako agirietan jasotzen diren datuak egiazkoak izatea.
14. Erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezteak –urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua aplikatuta– esan nahi du betebehar horiek betetzen dituela; hala ziurtatzen duen dokumentazioa duela; hura eskatzen zaionean Administrazioaren eskura jarriko duela; eskubidea aitortzen zaion bitartean betebehar horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; badakiela funtsezko zehaztasunik ezak, faltukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena duela.
15. Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko ditu NAN, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, eskatzaileek edo onuradunek ez dute berariazko baimenik eman beharrik izango, berariaz uko egiten diotela adierazten denean salbu, eta, kasu horretan, dagokien ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko dute. Hori guztia 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuta, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

□ **EZ DUT BAIMENIK EMATEN** laguntzak kudeatzen dituen organoak automatikoki egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla eta elkarteen erregistroan inskribatuta dagoela; horren ordez, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira. Ondorioz, eskabidearekin batera, eskatzen den dokumentazioa aurkezten dut.

....., 2023koren(a).

LEGEZKO ORDEZKARIAREN
SINADURA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ELKARTEAK 2023. ELKARTE ETA FEDERAZIOENTZAKO LAGUNTZAK
AZALPEN-MEMORIA**(e)tik..... orrialdea

Elkartea/Federazioa:

Garatu beharreko puntuak:

1) Erakundeak egin dituen edo egiteko asmoa duen jardueren eta ekimenen memoria deskribatzaile xehatua, eskatutako gastuen eta jardueren arabera.

2) 2023an garatu diren edo aurreikusita dauden ekimen eta ekintzak, dirulaguntza jasotzeko eskatutako gastuen arabera.

- Ekimenak eta ekintzak gauzatzeko aurreikusitako datak
- Giza-baliabideak eta baliabide materialak.
- Beste batzuk:

2023ko azaroaren 16a, osteguna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ELKARTEAK 2023. ELKARTE ETA FEDERAZIOENTZAKO LAGUNTZAK
SOZIALTEAREN ERABAKIA**

..... jaunak/andreak (NAN zk.:)
..... den
aldetik,

ZIURTATZEN DU:

Elkartean/Federazioan dagoen dokumentazioan 20.....(e)koren
.....(e)(a)ko Zuzendaritza Batzordean harturiko erabakia zehazten dela.

“Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari eskatzen dio Ekonomiaren
Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren aginduaren bidez deitutako
laguntzak jasotzea. Agindu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta
elikagaigintza-sektoreetako elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzetarako deia
egiten da, 2023ko ekitaldirako, 2023ko ekitaldiko gastuak ordaintzeko xedez”.

Erakundeari elkartutako sektoreko enpresak..... dira, eta ekarpen-
kuota€

....., 2023ko aren(a).

LEGEZKO ORDEZKARIAREN SINADURA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ELKARTEAK 2023. ELKARTE ETA FEDERAZIOENTZAKO LAGUNTZAK
ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabidea.
- Eskatutako laguntzaren xede diren gastuen zenbateko xehatua.
- Erantzukizunpeko adierazpena.
- Erakundeak ekitaldi ekonomikoan garatu dituen edo garatzea aurreikusten duen jardueren eta ekimenen memoria deskribatzaile xehatua, eskatutako gastu eta jardueren arabera: datak eta lekua, parte-hartzaileen kopurua eta ekintzen xedea, giza baliabideak (langileak) eta baliabide materialak (lokalak, bulegoak, etab.), helburu bererako lortutako laguntzak, eta laguntzaren premia eta zenbatekoa ebaluatzeko baliagarriak izan daitezkeen beste alderdi guztiak.
- Erakundeak edo elkarteak agindu honetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko hartu duen erabakiaren ziurtagiria.
- Eraketa-akta eta estatutuak, dagokion organo administratiboak ikus-onetsita.
- Hala badagokio, erakundea batasun, federazio edo bestelako erakunde baten barruan dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Identifikazio fiskaleko txartela.
- Ez bada baimenik ematen laguntza hauek kudeatzen dituen organoak egiaztapen hori automatikoki egin dezan, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dira.
- Nominapeko langileen gastuak justifikatzeko dokumentazioa.
- Hala badagokio, BEZaren aitortpena egitetik salbuetsita dagoelako ziurtagiria, foru-aldundiak eginikoa.
- Hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ekonomia eta Ogasun Sailak ezarritako ereduaren arabera. Helbide honetan eskuragarri:
<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>; betiere, lehenengoz aurkezten diren edo banku-datuak aldatuak dituzten eskatzaileei dagokienez.

Era berean, eskatutako diru-laguntzaren inguruan ebazpena eman eta diru-laguntza jaso ostean, onuradunak eskaera egin eta hurrengo ekitaldiko **martxoaren 31 baino lehenago** aurkeztu behar du **III. ERANSKINA** (GASTUAK JUSTIFIKATZEKO INPRIMAKIA), behar bezala beteta, eta, horrekin batera, fakturak eta bankuko justifikazio-agiriak aurkeztu behar ditu.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, tratatzeko. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen denez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara idazkia bidali beharko duzu, bera baita zure datuak tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

2023ko azaroaren 16a, osteguna

III. ERANSKINA

GASTUAK JUSTIFIKATZEKO INPRIMAKIA

GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

ELKARTEAK PROGRAMA

ELKARTEA:

AURREIKUSITAKO GASTUAK, 20... URTEA	EGINDAKO GASTUAK, 20... URTEA				
	<i>Faktura- zenbakia</i>	<i>Data</i>	<i>Jaulkitzailea</i>	<i>Gastuaren xedea</i>	<i>Zenbatekoa</i>
Ordezkaritza-zereginak					
Funtzionamendu-gastu arruntak Nominapeko langileen gastuak Bulegoen alokairuak Aseguru-primak Garbitasun- eta komunitate-gastu orokorrak Argi, ur, gas eta telefonoaren hornidura Zainketa- eta konponketa-gastuak, ibilgailuenak izan ezik Posta-zigiluek, mezularitza-zerbitzuek eta komunikazioek eragindako gastuak Bulegoko materiala, kopiak eta inprenta Profesional independenteen zerbitzuak; esaterako, gestoria, aholkularitza, eskatzailearen –kideena ez– jarduerarekin zerikusi zuzena duten kontsultak Publizitatea eta propaganda Argitalpenen harpidetza-kuotak					
Azterlanei eta izaera esperimentala duten jarduerari dagozkien gastuak					
Azokak edo lehiaketak antolatzeko gastuak					
AURREIKUSITAKO GASTUA, GUZTIRA (€)	EGINDAKO GASTUA, GUZTIRA (€)				

LEGEZKO ORDEZKARIAREN
SINADURA